## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

| | |
|---|---|
| **Departamentua:** | 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA |
| **Atala:** | 0430 - Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusia |
| **Programa:** | 300 - Gobernu Ona eta Herritarren Partaidetza |
| **Funtzionala:** | 924 - Herritarren parte hartzea |

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

Demokrazian sakontzeko xedez eta herritarrek duten partaidetzarako eskubidea egikaritzeko asmoz, GFAren eta lurraldeko udalen politika publikoen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan herritarren partaidetza sustatzea bilatzen dugu. Horretarako, lurraldeko udal, elkarte eta herritarrekin harremanetan eta elkarlanean ari gara, dela baliabide, bitarteko eta tresnak eraikiz, dela GFAko beste zuzendaritzen egiteko moduetan eraginez eta partaidetzazko kulturak dakarren demokratizazioan sakonduz. Horrek esan nahi du, herritarren artean dauden desberdinkeriak aintzat hartu behar ditugula, parte hartzeko baldintza ez berdinkideak berdintzeko saiaketa eginez. Horien artean, sexuaren araberako bereizkerian arreta berezia jartzen dugu, eta baita honek beste bazterketa ardatzekin (adina, ikasketa maila, maila sozio-ekonomikoa, arraza, hizkuntza, sexualitatea) nola elkar-eragiten duten horretan ere. Beraz, genero-ikuspegia aplikatzen dugu, gure jarduerak genero-eraikuntzan eta herritarren genero arteko harremanetan duen eragina kontuan hartuta. Era berean, hizkuntza-berdintasuna sustatzen dugu, gure parte-hartze programan ekintza jakin batzuk txertatuz.

**Egoeraren diagnostikoa:**

GFAk Partaidetzaren aldeko apustua 2010ean hasi zuen, Herritarren Partaidetzari buruzko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Araua onartu eta ondoren Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza sortu zenean. Araudiari dagokionez, beste mugarri garrantzitsu bat izan zen azaroaren 12ko 5/2018 Foru Araua onartu izana, aurrekoaren erreforma ekarri zuena (1/2010 Foru Araua).

Herritarren Partaidetzarako lehenengo Programa, Orain Zu izenekoa. Herritarren Partaidetza 2015-2019 legegintzaldian sortu zen, herritarrekiko harreman irekia sendotzeko eta parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzeko, lau jarduera-ardatzen bidez: indartzea, hedatzea, erraztea eta zabaltzea.

Elkarlaneko gobernantzaren eredua sendotzen jarraitu ahal izateko, lankidetza eta baterako sorkuntza politika publikoen garapen-eremu guztietara eraman ahal izateko, beharrezkoa da zuzendaritza politikoaren eta GFAko lantalde teknikoen arteko lankidetza sustatzea, antolatutako gizartearekin eta gainerako erakunde-sistemarekin. Horretarako, Partaidetza Zuzendaritzak 2019-2023 Partaidetza Programa diseinatu zuen.

2024-2027 legegintzaldirako, 2024-2027 Partaidetza Programa diseinatu zen, eta Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2024ko irailean. Programa horretan, 3 helburu estrategiko ezarri ziren (Lurraldean Ekintza Komunitarioa indartzea; Erakundeak prestatzea eta lurraldean praktika parte hartzaileak zabaltzea; Partaidetzaren kalitatean sakontzea); zeharkako 2 helburu (Trebakuntza eskaintzea, Gipuzkoako Eskola Irekiaren bidez (GEI) partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko; Komunikazioa eta dibulgazioa egitea, partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko); eta 15 jardun-ildo, herritarren partaidetzarako eta komunitate-ekintzarako ezarritako helburu bakoitzarekin lotuta.

Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko-sozialaren Zuzendaritza hainbat konpromisoren buru izan da Euskadiko OGPren lehen bi planetan, eta 2025-2028 aldirako Euskadiko Gobernu Irekiaren III. Plan berriari (OGP) begira, zuzendaritza honek aktiboki hartuko du parte 3 konpromisotan.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta udalak azken urteotan aurkezten ari diren dirulaguntzen historia aztertu ondoren, haientzako finantza-laguntza indartzeko beharra ikusi zen; izan ere, pandemian izandako geldialdiaren ondoren, 2021ean nabarmen handitu zen haien parte-hartzea. 2024an eta 2025ean, gero eta proiektu gehiago aurkeztu dira, udalek eta elkarteek herritarren parte-hartzea eta ekintza komunitarioa sustatzen jarraitzeko.

2022an, garapen komunitariorako GFAren kontzeptu-esparrua definitu eta onartu zen, eta, ondorengo urteetan, GFAren beste zuzendaritza batzuekin ari da lanean, udalei zuzendutako proiektuak garatzen, ikuspegi komunitarioa erabiliz. 2024an eta 2025ean zehar, hainbat tailer egin dira udalekin ekintza komunitarioa lantzeko, eta udako ikastaroak antolatu dira komunitatea sortzeko behar diren gakoei eta ekipamenduei buruz, bai eta Euskadi eta Estatu mailako praktika komunitarioen ezagutzari buruz ere. 2026ari begira, gizarte-ekintza bultzatzen jarraituko dugu, dirulaguntzen, prestakuntza-tailerren eta proiektu zehatzen bidez.

Partaidetza prozesuetan genero ikuspegia txertatuko da, emakumeek politika publikoetan parte hartzean

duten ordezkaritza historikoa gainditzeko.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

2024-2027 Partaidetza Programak, komunitateen eta erakundeen kalitate demokratikoan sakontzeko helburuarekin, funtsezko bi zutabe ezartzen ditu: ekintza komunitarioa eta herritarren partaidetza, eta hori hedatzeko 5 helburu estrategiko ezartzen ditu:
1) Ekintza Komunitarioa
2) Erakundeak prestatzea
3) Partaidetzaren kalitatea
4) Trebakuntza
5) Komunikazioa

**Nori zuzendua:**

Herritarrak, herritarren erakundeak, udalak eta Foru Aldundiaren beraren zuzendaritzak eta zerbitzuak.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Lan talde teknikoa, enpresak eta baliabide teknologikoak.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

- Lurraldean Ekintza Komunitarioa indartzea, Aldundiaren eta toki erakundeen erraztatzaile rola sustatuz
- Erakundeak prestatzea eta lurraldean praktika parte hartzaileak zabaltzea: kanporantz ahalik eta erlazionalenak izateko barruko antolaketa birpentsatzea eta entzunda erabakitzea eta erabakitzeko entzutea.
- Partaidetzaren kalitatean sakontzea, ondorengo printzipioetan sakonduz:
  - Unibertsaltasuna: Emakume eta gizonezkoek, berdintasun-baldintzetan parte hartzea;
  - Inklusioa: Homogeneotasuna gainditzeko ahots anitzak, libreki eta segurtasunez entzuteko mekanismoak txertatzea eta partaidetzarako sarbidea erraztea, pertsonen ezaugarri indibidual eta sozialetarako bitarteko egokiekin;
  - Gardentasuna eta etika publikoa.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Partaidetza sendotzeko estrukturak (Gizarte kontseilua, Herritarren Partaidetzako Foru Batzordea, Erakunde arteko Espazioa eta Elkarteen foroa), dirulaguntzak, formakuntza, kongresuak, gidak, sareak eta partaidetza prozesuak finkatzeko aholkularitza teknikoa.

**Programaren arau esparrua:**

Herritarren partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa.
Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako.
1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana 2025-2027.

**2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA**

**Urteko helburua:** Herritarren kultura demokratikoan eta ardura komunitarioan sakontzea.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erakundeen arteko eremuan parte hartzen duten Udalen asebetetze-maila, eta baita erakundeena ere | Eskala 1-10 | >= | 8,50 | 8,50 | 8,50 | 8,00 |

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Diruz lagundutako proiektuen kopurua (udalak eta elkarteak) | Kopurua | >= | 123,00 | 100,00 | 120,00 | 75,00 |
| Lurraldean lagundutako garapen ekimen komunitarioen zenbatekoa | Kopurua | = | 0,00 | 15,00 | 25,00 | 30,00 |

## Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 92,76

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 4,71

18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA % 2,53

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **1.829.723,62** | **450.000,00** | | **2026/01/01** | **2027/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Herritarren partaidetzarako foru ekimenen dinamizazioa | 357.614,15 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Udalei eta entitate txikiei aholkularitza zerbitzua. | 65.143,38 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroa. | 1.746,44 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.4 Ekintza**<br>Kudeaketa arrunta | 74.857,84 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.5 Ekintza**<br>Beste zuzendaritzei aholkularitza eta prestakuntza | 53.732,23 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.6 Ekintza**<br>Gipuzkoako Eskola Irekia (GEI) bultzatzea, Gipuzkoako gizartean partaidetzazko eta elkarlaneko kultura sustatzeko, balio publikoa sortzeko, haien eskubideak gaitu eta ezagutuz. | 190.266,11 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.7 Ekintza**<br>Herritarren Partaidetzako Foru batzordearen kudeaketa | 8.732,23 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.8 Ekintza**<br>2024-2027 Herritarren Partaidetza Programan jasotako ekintza guztien jarraipena eta ebaluazioa egitea | 17.464,46 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.9 Ekintza**<br>Udalei eta entitate txikiei dirulaguntzak | 652.393,38 | 300.000,00 | | 2026/01/01 | 2027/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.10 Ekintza**<br>Herritar erakundeei dirulaguntzak ematea | 350.055,38 | 150.000,00 | | 2026/01/01 | 2027/12/31 | |
| **1.11 Ekintza**<br>Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berrituak txertatu. | 27.718,02 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.12 Ekintza**<br>Baterajauzi | 30.000,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

**Urteko helburua:** Gipuzkoar gizartean ehun komunitarioa indartzea eta berritzea, elkarlana eta parte-hartzea sustatuz.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lurraldeko elkarteak indartzera bideratutako tresnak edota espazioak | Kopurua | = | 0,00 | 5,00 | 10,00 | 15,00 |
| 2024-2027 Herritarren partaidetzako programaren ekintzak | Kopurua | >= | 18,00 | 24,00 | 30,00 | 47,00 |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**
Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea.

5 GENERO BERDINTASUNA % 1,77 | 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 96,13 | 18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA % 2,10

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **623.303,54** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Esperientziak sistematizatzea eta geo-lokalizazio mapa elikatzea. | 49.161,15 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Plataforma digitalean hobekuntzak garatzen eta ezartzen jarraitzea | 69.857,84 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Hiritargo aktiboa | 50.464,46 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | ✔ |
| **1.4 Ekintza**<br>Herritarren partaidetzari buruzko teoria eta praktikak | 50.161,15 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| komunikatu eta partekatu: topaketak, aldizkariak, eta abar | | | | | | |
| **1.5 Ekintza**<br>Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazioaren dinamizazioa eta bere urteko egitarauaren betetze maila | 186.072,30 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.6 Ekintza**<br>Herritarren partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren dinamizazioa eta bere urteko egitarauaren betetze maila | 50.530,45 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.7 Ekintza**<br>Partaidetzako sareetan sartzea eta proiektuak hedatzea | 70.661,15 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.8 Ekintza**<br>Elkarteen Foroaren dinamizazioa eta bere urteko egitarauaren betetze maila | 61.232,23 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.9 Ekintza**<br>Euskararen erabilera bermatzea Zuzendaritzak egiten dituen herritarren partaidetzako ekintza eta proiektu guztietan, euskararen erabilera sustatuz, bai barruan, bai herritarrei zuzendutako ekintzetan. | 13.098,35 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.10 Ekintza**<br>Parte hartzearen kalitatearen adierazleekin datu-base bat egitea, parte hartzean eragiten duten genero-adierazleak txertatuz. | 11.665,56 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |
| **1.11 Ekintza**<br>Ah.9.1.3. Baldintzak sortzea, Herritarren partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Arauan eta haren ebaluazioan aurreikusitako partaidetza tresnetan mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduak parte hartzeko. | 10.398,90 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

**2. Ekintza lerroa:**

Lurraldeko elkartegintza sendotzeko estrategia garatzea, gizarte eragileen eta elkarteen artean belaunaldien arteko politika bat landuz, belaunaldien berritzea aktibatuz eta boluntariotza sustatuz

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 50,00

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 50,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **269.857,84** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **2.1 Ekintza** | | | | | | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Trakzio Proiektua: Elkartegintza sustatzeko epe luzerako estrategia | 269.857,84 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

## DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

**Urteko helburua:** Partaidetzaren kalitatean sakontzea

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kalitate demokratikoa hobetzeko aliantza berrien kopurua | Kopurua | >= | 1,00 | 1,00 | 1,00 | 2,00 |

### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Lurraldeko kalitate demokratikoa indartzeko lan egitea

% 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **4.000,00** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza** Parte hartzeko prozesuak ebaluatzeko gida erabiltzea, zehazki, genero-azterketarako aldagaiak | 4.000,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

**Urteko helburua:** Trebakuntza eskaintzea, Gipuzkoako Eskola Irekiaren bidez (GEI) partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Prestakuntza-ekintzen kopurua | Kopurua | >= | 23,00 | 25,00 | 25,00 | 100,00 |

### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Genero-ikuspegia txertatzea prestakuntza-programetan - GEI

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 100,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **25.000,00** | | | **2026/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Prestakuntza-ikastaroak antolatzea, herritarrek parte hartzeko eta ekintza komunitarioko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko | 25.000,00 | | | 2026/01/01 | 2026/12/31 | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Herritarren Partaidetzako aurrekontu-programak hainbat arau-agindu ezartzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna arautzeko, eta honako hauek dira kontuan hartu beharreko garrantzitsuenak:
- 3/2007 Legea, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legea (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testu bategina)
- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.
- Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana 2024-2027
- 5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa, herritarren parte-hartzeari buruzkoa. Arau horren barruan, zehatz-mehatz banakatzen dira emakumeen eta gizonen berdintasuna arautzen eta aurreikusten duten artikuluak
- 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan

Gure helburu estrategikoetako baten bitartez, kultura politiko demokratikoan sakondu nahi dugu, administrazioaren egiteko eta harremanetarako moduak aldatuz, herritarrek erabakietan parte hartzeko duten eskubidea aitortuz eta bermatuz. Horretarako, unibertsaltasunaren, berdintasunaren, inklusioaren, gardentasunaren eta etika publikoaren printzipioak jorratuko ditugu bereziki.
Erakundeek egiten duten unibertsaltasunaren printzipioa kontuan hartu behar da; besteak beste, herritar guztiek parte hartzeko duten eskubidea bermatu behar da, lurralde-orekatik, aniztasun sozialetik eta ekonomikotik abiatuta.
Emakumeek eta gizonek berdintasunean parte har dezaten lan egingo dugu.
Identifikatutako desberdintasun nagusiak honako hauek dira:
- Ordezkaritza-organoak: Emakumeen presentzia handia (Etika Batzordea % 67, Gizarte Kontseilua % 62, Foru Batzordea % 60, Elkarteen Foroa % 78)
-Parte-hartzeari buruzko interesa: parte-hartzaileen % 60 baino gehiago emakumeak
- Segregazio bertikala: Erakundeen erregistroko zuzendaritza batzordeak: Presidentetzak %44,8 emakumeak
- Parte hartzeko moduak: Emakumeek gutxiago eta denbora gutxiagorako esku hartzen dute
-Berdintasunerako neurriak saritzeko klausulak: Udalek batez beste 1,55 puntu lortu dituzte (gehienez 2); elkarteek puntuazio baxuagoa lortu dute
- Mugimendu feminista ekosisteman: Erregistratutako 99 elkartetatik, batek bakarrik egiten du lan esplizituki genero berdintasunean
- Informazio publikoaren eskaera: eskabideen % 75 gizonek egin dituzte
- Jauregiko arreta-bulegoetako erabiltzaileak: emakumeak % 61

Gure esku-hartzeetan desberdintasunak gutxitze aldera, honako alderdi hauetan jarriko dugu arreta:
- Datuen bilketa hobetzea
- Emakumeen proposamenak sustatzea eta aitortzea, sexuaren araberako bereizketaren bidez.
- Parte hartzeko prozesuak genero-ikuspegitik diseinatu eta ebaluatzeko prestakuntza ematea.

Egiteko moduak hobetzeko, 4 ekintza ezartzen dira:
- Datu-basea egitea kalitate-adierazleekin, genero-adierazleak txertatuta.
- Talde feministek partaidetzazko deliberazio-prozesuetan parte har dezaten erraztea, eztabaida-prozesuen barruan talde feministekin berariazko foroak, taldeak edo tailerrak sortuz; talde feministei laguntza logistikoa emanez; talde feministekin informazio-/komunikazio-bideak ezarriz; ebaluazio- eta atzeraelikadura-mekanismoak ezarriz, talde feministen eztabaida-prozesuei buruzko iruzkinak jasotzeko.
- Dirulaguntzen ildoetan, emakumeek partaidetza prozesuetan duten parte-hartzea baloratzea.
- Prestakuntza programetan genero ikuspegia txertatzea, eduki edo modulu espezifikoen bidez; erabilitako materialak, irakasle-talde espezializatua...

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Herritarren Partaidetzarako Programan jasotako ekintzak garatzeko egiten diren ekintza guztietan eta abian jartzen diren herritarren parte-hartze eta ekintza komunitarioen prozesuetan euskararen erabilera sustatzea eta bermatzea. Aldi berean, programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berrituak txertatuko dira.

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| **6.- Hizkuntza-klausulak** | **6.- Hizkuntza-klausulak** |

## PARTAIDETZA PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Legegintzaldi honetan lehentasun bezala jasotzen da herritarren partaidetzaren bidez egungo politikaren eta administrazio publikoen izaera eta kultura aldatzen joatea eta herritarren ahotsa politika publikoetan txertatzea. Era berean, komunitate demokratikoen eraikuntzan ekarpena egin nahi du ekintza komunitarioaren sustapenaren bidez.
GFAk lankidetzan oinarrituko du bere jarduna, eta 2024-2027 programaren bidez, herritarren parte-hartze prozesuak eta ekintza komunitarioa sustatzea helburu duten proiektuak edo ekimenak bultzatuko ditu.

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 1.141.234,77 | ( % 35,64 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 1.141.234,77 | ( % 41,47 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Kategoria % | Nola |
|---|---|---|
| **10. ORGANOAK** | **( % 15,38 )** | **40. Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua** |
| | | **44. Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa** |
| **11. PARTAIDETZA ESPARRUAK** | **( % 15,38 )** | **46. Elkarteen foroa** |
| | | **47. GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa** |
| **4.AHOLKULARITZA** | **( % 23,08 )** | **11. Barne erakunde aholkularitza** |
| | | **12. Udalentzako eta erakunde aholkularitza** |
| **6. PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA** | **( % 7,69 )** | **15. Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola** |
| **7. EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA** | **( % 30,77 )** | **21. Txostenak eta sistematizazioa** |
| | | **22. Gidak** |
| | | **23. Newsletterra** |
| | | **26. Ekitaldiak** |
| | | **27. OGP Euskadin parte hartu** |
| | | **28. Sare akademiko eta profesionalak** |
| | | **29. Herritar Erakundeen Erregistroa** |
| **9. BERRIKUNTZA** | **( % 7,69 )** | **33. Plataforma kolaboratiboa** |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024-2027 legegintzaldirako Plan Estrategikoan zeharkako helburu gisa ezarri du garapen iraunkorra eta bidezkoa (GJH) sustatuko duten balioak, ohiturak eta gaitasunak bultzatzeko ekimenak garatzea. 2026ean 11. helburuan :  2030. urterako, Gipuzkoako giza kokalekuen hirigintza inklusibo eta jasangarria eta plangintza eta kudeaketa parte-hartzailerako, integraturako eta jasangarrirako gaitasuna handitzea bultzatuko da. 16. helburua lantzen jarraituko da, baita 5. helburua ere, generoen arteko berdintasuna lortzeko eta emakume eta neska guztiak ahalduntzeko. 17. helburuaren barruan : Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea jorratuko da. Azkenik 18. helburuen barruan Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea bultzatuko da.

**Kuantifikazioa:** 3.201.885,00 ( % 100,00 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| 5 GENERO BERDINTASUNA | 5-Genero berdintasuna<br><br>Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea. | **11.032,23** | |
| **Helburua** | 5.5 - Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan | 11.032,23 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea. | 11.032,23 | |
| 11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK | 11-Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea. | **134.928,92** | |
| **Helburua** | 11.3 - 2030. urterako, Gipuzkoako giza kokalekuen hirigintza inklusibo eta jasangarria eta plangintza eta kudeaketa parte-hartzailerako, integraturako eta jasangarrirako gaitasuna handitzea. | 134.928,92 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Lurraldeko elkartegintza sendotzeko estrategia garatzea, gizarte eragileen eta elkarteen artean belaunaldien arteko politika bat landuz, belaunaldien berritzea aktibatuz eta boluntariotza sustatuz | 134.928,92 | |
| 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK | 16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak<br><br>Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan. | **2.292.749,03** | **450.000,00** |
| **Helburua** | 16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan | 17.464,46 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| | Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea | 17.464,46 | |
| **Helburua** | 16.07 - Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan | 2.275.284,57 | 450.000,00 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea | 1.647.111,61 | 450.000,00 |
| | Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea. | 599.172,96 | |
| | Lurraldeko kalitate demokratikoa indartzeko lan egitea | 4.000,00 | |
| | Genero-ikuspegia txertatzea prestakuntza-programetan - GEI | 25.000,00 | |
| 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA | 17-Helburuak lortzeko aliantza<br><br>Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea. | **242.358,45** | |
| **Helburua** | 17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz. | 242.358,45 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea | 107.429,53 | |
| | Lurraldeko elkartegintza sendotzeko estrategia garatzea, gizarte eragileen eta elkarteen artean belaunaldien arteko politika bat landuz, belaunaldien berritzea aktibatuz eta boluntariotza sustatuz | 134.928,92 | |
| 18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA | 18-kultura eta hizkuntza aniztasuna<br><br>Kultura eta hizkuntza aniztasuna | **70.816,37** | |
| **Helburua** | 18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa | 70.816,37 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren formakuntzarako beharrei erantzutea eta lankidetzazko gobernantzan sakontzeko elkargunerako guneak indartzea | 57.718,02 | |
| | Gipuzkoar gizartea aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea. | 13.098,35 | |
| **Guztira** | | **2.751.885,00** | **450.000,00** |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2025 | 2026 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2027 | 2028 | 2029 | 2030 eta hurrengoak/ 2030 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL | 782.199,00 | 873.223,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 1.063.000,00 | 891.000,00 | | | | | |
| 3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 875.880,00 | 987.662,00 | 450.000,00 | | | | 450.000,00 |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **2.721.079,00** | **2.751.885,00** | **450.000,00** | | | | **450.000,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES | | | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | | | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **2.721.079,00** | **2.751.885,00** | **450.000,00** | | | | **450.000,00** |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK<br>GASTOS DE PERSONAL | 873.223,00 | | | | 873.223,00 | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK<br>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 862.000,00 | 29.000,00 | | | 862.000,00 | 29.000,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK<br>GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 987.662,00 | | 450.000,00 | | 1.437.662,00 | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **2.722.885,00** | **29.000,00** | **450.000,00** | | **3.172.885,00** | **29.000,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **2.722.885,00** | **29.000,00** | **450.000,00** | | **3.172.885,00** | **29.000,00** |